

**ZUZENBIDE FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAK 2015eko
OTSAILAREN 12an EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Bertaratu diren batzordekideak:

- Arantza CAMPOS (batzordeburua)**
- Garbiñe ESTEFANO (AZP)**
- Leire IMAZ (II)**
- Osca ARROYUELO (Ikastegiko administratzailea)**

Bertaratu ez diren batzordekideak:

- Ikasleen ordezkariak**

Ezin etorria adierazi duten batzordekideak

- Sofía ARANA (II)**
- Maggy BARRÈRE (II)**
- Maite BARRUETABEÑA (II)**
- Jokin ALBERDI (II)**

Berdintasun Batzordea, presidenteak zabalduetako deialdian jaso bezala, Donostiako Zuzenbide Fakultateko Batzar Aretoan bildu da 11:30ean.

Gorabeherak

Hartutako erabakiak:

- 1) Aurreko akta onartzea.**
- 2) Batzordea berrantolatzea: Fakultateko Ikasleen Kontseiluari eta Maite Zelaiari (ikasleen errektoreordea da) jakinaraztea ordezkatu egingo dugula Ikasleen Kontseiluak Batzorde honetako kide izendatutako ikaslea; Batzordean parte hartzeko interesa duen baten bat hartuko dugu. Kontua ez da ikasle hori ez dela Batzordearen bileretara etortzen (horrek eragin du erabaki hori hartzea), ezpada ikasle horrek berak adierazi digula "ezinezkoa zait Batzorde horretan parte hartzea". Batzordeburua saiatu egingo da, ea gaian interesa duen ikasleren batek parte hartze aktiboa izatea lortzen duen.**

- 3) Gure unibertsitatean generoari eta berdintasunari buruzko datu base espezifikoa sortzeko orain arte emandako pausoak eta egindako prozesua.
- A) Gutun bat igortzea Teresa Nuñori, Maite Zelaiari eta Nekane Zalduari, interesa agertzeko egin diguten azken proposamenaren inguruan. Izan ere, uste dugu ibili beharreko bidearen hasiera dela (Teresa Nuñoren gutuna erantsi da). Nolanahi ere den, adierazi egin behar zaie ez dela inola ere azken helburua. Datu base bat sortzea (erreferentzia bibliografikoak). Ez diogu uko egiten horri.

Gutun bat igortzea dekanotza taldeari, gure kezka adierazteko, zuzentzen dituzten bileretan gutxi erabiltzen delako lengoaia "ez sexista". Badakigu ez dela kontu txikia eta erraza. Hain zuzen ere, horregatik eskatzen dugu, printzipioekin eta Batzorde honekin duten konpromisoaren, misioaren eta ikuspegiaren erakusgarri (UPV/EHUko 2012/2017 aldirako Plan Estrategikoan daude jasota), beren esku dagoena egin dezatela, arian-arian gure Fakultateak erakuts dezan posible dela lengoaia sexista erabili gabe komunikatzea.

Halaber, bidezko eskaerak egiteko eskatzen dizuegu, GAURen, giden kudeaketan... emakume irakasle garenok ez gaitezen "profesores" izan, emakume ikasle garenok ez gaitezen "alumnos" izan eta administrazio eta zerbitzuetako langile emakumeak ez daitezen "técnicos" izan.

- 4) Batzordeburuak Unibertsitateko Berdintasuneko zuzendariarekin eginiko bileran eskatutakoaren alde egitea ebatzi da. Hau dio:
- "Duela zenbait aste Teresa Nuñorekin eginiko bileran, eskatu nion bilera batera deitzeko Unibertsitateko berdintasun batzorde guztietako buruei, estrategia partekatu bat diseinatzeko, emaitza hobekak lortzeko eta gure isolamendua hausteko; izan ere, talde lanak beti eragiten ditu zenbait kontu lortzeko sinergia lagungarriak".
- 5) Orain arte "espazioei izendapen berria emateko" proposamen gutxi jaso denez, ebatzi da ahalegin bat egitea, irakasleek ikasleak bultzatzen eta, aldi berean, proposamenak egin ditzaten. Horretarako beste mezu bat igortzea ebatzi da. Batzordeburuak esan du jarrera hori bultzatzeko esaldiren edo leloren bat pentsatzeko duela.
- 6) 2014/2015 eta 2015/2016 ikasturteetarako proposamenak.
- Dugun indarra izanda, ebatzi da ahalegin guztia erabiltzea "jardunaldi" batzuk egiteko, GGEE-en jaialdiarekin loturik. Bestalde, Fakultateko aldizkarian feminismoari eta zuzenbideari, edo emakumeen eskubideei...

buruzko zerbait argitaratzea euskaraz. Ebatzi da gaiari buruz hausnartzea eta proiektu horren inguruko bilera monotematikoa egitea martxoaren lehenengo edo bigarren astean. Guztiok bertaratu ahal izateko, gure agendak egokitu ahal izatea espero da.

Besterik gabe

Bilera 13:00etan amaitu da.
Donostian, 2015eko otsailaren 12an

Sin.: Arantza Campos
(batzordeburua)